



LANKIDETZA-HITZARMENA,
ARARTEKOAREN ETA EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOROKO
ADMINISTRAZIOAREN ARTEKOA,
KOMUNIKAZIOAK TRUKATZEAN
BITARTEKO TELEMATIKOAK
ERABILTZEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL
ARARTEKO y LA ADMINISTRACIÓN DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI
PARA LA UTILIZACIÓN DE MEDIOS
TELEMÁTICOS EN EL INTERCAMBIO DE
COMUNICACIONES.

Gasteizen, 2013ko urriaren 8an.

Alde batetik, Iñigo Lamarca Iturbe jauna, Ararteko, erakunde horren ordezkaria, eta

Bestetik, Josu Iñaki Erkoreka Gervasio, Herri Administrazio eta Justizia Sailburua, Eusko Jaurlaritzaren izenean eta haren ordezkari gisa, Gobernu Kontseiluak 2013ko uztailaren 23an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, egintza hau egiteko baimena duena.

Bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena aitortu diote elkarri, eta, bat eginik, hauxe

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de octubre de 2013.

De una parte, el Excmo. Sr. D. Iñigo Lamarca Iturbe, Ararteko, en representación de dicha institución, y

De otra parte, Josu Iñaki Erkoreka Gervasio, Consejero de Administración Pública y Justicia, en nombre y representación del Gobierno Vasco, autorizada para este acto por Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno en su sesión de 23 de julio de 2013.

Ambas partes se reconocen capacidad suficiente para otorgar el presente convenio, y de común acuerdo,

AZALDU DUTE:

Eusko Jaurlaritza eta Ararteko ahalegin handiak egiten ari dira nor bere lan-eremuan bitarteko telematikoak are gehiago erabiltzeko.

EXPONEN:

Tanto el Gobierno Vasco como el Ararteko vienen realizando importantes esfuerzos a fin de extender la utilización de medios telemáticos en sus respectivos ámbitos de actuación.

Hori dela bide, Eusko Jaurlaritzan, esperientzia handia dute beste erakunde batzuekin dituzten harremanetan sinadura elektroniko aurreratua erabiltzen. Arartekoak ere sistema hori abiaraztearen alde egin du, autentikotasuna eta segurtasuna bermatzen baitu.

Esto ha permitido que en el ámbito del Gobierno Vasco exista una importante experiencia en la utilización de firma electrónica avanzada en sus relaciones con otras instituciones; sistema por cuya implantación ha apostado, asimismo, el Ararteko a la vista de las garantías de autenticidad e integridad que aporta.

Hitzarmen honen helburua da lankidetza-esparru bat ezartzea bi erakunde horien esperientziak uztartzeko. Horretarako, komunikazioak trukatzeko sistema elektroniko bat arautuko dute; Izenpe SAk ematen dituen egiaztagiriak erabiltzen ditu sistema horrek. Eusko Jaurlaritzak eta Arartekoak erakunde hori antolatu dute, hain zuen ere, zerbitzu horiek emateko.

Ekimenak ezin ukatuzko interesa du: erakunde bien harremanak bizkortuko ditu (azaldu beharrik ez dago zeinen garrantzitsuak diren harreman horiek), eta erakunde biak gai izango dira kalitatezko zerbitzu publikoak emateko, bai eta bidezko epeetan emateko ere.

Ekimenak, halaber, are aukera handiagoa emango dio proiektuari sistema jakin bat erabiltzeko. Sistema horrek ziurtagiri elektronikoetan oinarrituko sinadura aurreratua darabil, eta, aipatutako bermeak direla eta, ezinbesteko tresna bilakatzen ari da sektore publikoan informazioaren gizartea garatzeko; hain zuen ere, segurtasun juridikoaren printzipioak ezin baitezake inolako arraildurarik izan.

El presente convenio tiene por objeto establecer un marco de colaboración en el que ambas experiencias confluyan, regulando un sistema electrónico de intercambio de comunicaciones que emplea los certificados electrónicos emitidos por Izenpe, S.A, entidad de la que se han dotado Gobierno Vasco y Ararteko para la prestación de esos servicios.

La iniciativa ofrece un indudable interés por la mejora que reporta en la fluidez en las relaciones entre ambas Instituciones, cuya importancia resulta innecesario justificar, desde la perspectiva de prestación de servicios públicos de calidad en plazos razonables, que a ambas instituciones alcanza.

Refuerza, asimismo, la oportunidad del proyecto el empleo de un sistema de firma avanzada basada en certificados electrónicos que, por las garantías anteriormente mencionadas, se vislumbra como el instrumento imprescindible para el desarrollo de la sociedad de la información en un sector, como el público, en el que el principio de seguridad jurídica no puede sufrir menoscabo alguno.

Convenio de colaboración para la utilización de medios telemáticos en el intercambio de comunicaciones.
Lankidetza-hitzarmena, komunikazio-trukerako bitarteko telematikoak erabiltzeko.



M. A. de 9

Horrekin batera, ezinbestekoa da jarraibide, epe eta prozedura batzuk ezartzera eta alde biek horiek betetzea, ahalik eta eraginkortasun handienaz betetzeko hitzarmen honen helburua, bai eta erakunde bien eginkizunen errekerimenduak ere.

Horiek horrela, alde biek, elkar hartuta, hitzarmen hau izenpetu dute, eta klausula hauek ezarri:

En paralelo, se hace imprescindible abordar una serie de pautas, plazos y procedimientos a los que se sujetarán ambas partes, a fin de que el objetivo del presente convenio, así como los requerimientos de las funciones de ambas instituciones, alcancen su máxima efectividad.

Por lo expuesto, ambas partes, de mutuo acuerdo, suscriben el presente convenio de conformidad con las siguientes

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren helburua.


Hitzarmen honen helburua da Arartekoak eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin lan egitea, beren arteko harremanetan teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematiko erabilera eta aplikazioa bultzatzeko. Zehazki, konpromisoa hartu dute bitarteko horiek erabiltzeko, hitzarmen honetako akordioen arabera, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bidez bien artean egiten diren komunikazioetan eta dokumentu-trukatzeetan.

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del convenio.

El objeto del presente convenio es la colaboración entre el Ararteko y el Gobierno Vasco en orden a impulsar el empleo y aplicación de las técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos, en sus relaciones. En particular se comprometen a emplear estos medios, de conformidad con las estipulaciones del presente convenio, en las comunicaciones e intercambios documentales que se efectúan entre ambos a través de la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento del Gobierno Vasco.

Convenio de colaboración para la utilización de medios telemáticos en el intercambio de comunicaciones.
Lankidetza-hitzarmena, komunikazio-trukerako bitarteko telematikoak erabiltzeko.



3 de 9

Bigarren.- Komunikazioetako bermeak.

Komunikazio elektronikoen autentikotasuna eta osotasuna bermatu beharko da, bai eta komunikazio horiek behar bezala gordetzen direla eta interesunek jasotzen dituztela ere.

Hirugarrena.- Sinadura elektroniko aurreratuaren erabilera.

1.- Hitzarmen honetan xedatzen denarekin bat, alde izenpetzaileek eskuz izenpetutako dokumentuei bezainbateko balio eta eraginkortasun juridikoa emango diente sinadura elektroniko aurreratua erabiliz igortzen diren dokumentu elektronikoei.

2.- Komunikazioen autentikotasuna eta osotasuna bermatzeko erabiliko den sinadura elektroniko aurreratua ziurtagiri elektroniko batean oinarrituko da, eta sinadura sortzeko gailu seguru baten bidez sortuko.

3.- Ondore horietarako, onartu, Izenpe SA ziurtatze-zerbitzuen egileak ematen dituen ziurtagiri elektronikoak onartuko dira.

4.- Alde jasotzailearen zereginia izango da jasotako komunikazio elektronikoan sinadura egiazatzeko gailuak aplikatzea, zertarako eta izenpetutako datuen edukia modu fidagarrian ezartzeko eta aldatuak izan ote diren antzemateko, izenpetzailearen nortasuna behar bezala erakusteko eta dagokion ziurtagiriaren autentikotasuna eta balioa egiazatzeko.

Segunda.- Garantías en las comunicaciones.

Se garantizará la autenticidad, integridad y conservación de las comunicaciones electrónicas, así como la recepción por las personas interesadas.

Tercera.- Utilización de la firma electrónica avanzada.


1.- Las partes firmantes otorgarán a los documentos electrónicos en cuya emisión se utilice la firma electrónica avanzada de acuerdo con lo estipulado en el presente convenio el mismo valor y eficacia jurídica que si se hubieran generado con firma manuscrita.

2.- La autenticidad y la integridad de las comunicaciones se garantizará a través de la utilización de la firma electrónica avanzada basada en un certificado electrónico y generada mediante un dispositivo seguro de creación de firma.

3.- Los certificados electrónicos admitidos a estos efectos son los certificados electrónicos emitidos por el Prestador de Servicios de Certificación Izenpe, S.A.

4.- Correspondrá a la parte destinataria la carga de aplicar los dispositivos de verificación de firma en la comunicación electrónica recibida, al efecto de establecer de forma fiable el contenido de los datos firmados y detectar si han sido modificados, mostrar correctamente la identidad del firmante y verificar la autenticidad y validez del certificado correspondiente.

Convenio de colaboración para la utilización de medios telemáticos en el intercambio de comunicaciones.
Lankidetza-hitzarmena, komunikazio-trukerako bitarteko telematikoak erabiltzeko.



4 de 9

Ziurtagiriaren balioa egiaztatzeari dagokionez, eranskinean jasotzen diren errekerimendua bete beharko dira.

En relación con la verificación de la validez del certificado, se cumplirán los requerimientos contenidos en el Anexo.

Laugarrena.- Aldeen betebeharrak.

1.- Alde bakoitzaren erantzukizuna da hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen direla bermatuko duten neurri informatikoak edo bestelakoak hartzea. Zehazki, alde bakoitzak jarri beharko ditu sinadura elektronikoa ezartzeko bitartekoak; esate baterako, ziurtagiri elektronikoak eta sinadura sortzeko eta egiaztatzeko gailuak eskuratu beharko ditu.

2.- Erakunde izenpetzaileetako bakoitzak hartu beharreko neurriak hartu beharko ditu, komunikazio telematikoak erregistratzeari eta gordetzeari dagokionez aplikatzekoa den araudiaren arabera betar behar dituen betebeharrak betetzen dituela bermatzeko. Era berean, alde bakoitzak bermatu beharko du behar bezala izenpetutako hartu-agiri elektronikoak sortzen dituela, idazkiak hartu eta erregistratu izana ziurtatzeko.

Bosgarrena.- Proiektuaren eta komunikazioen arduradun izango diren organo esku-hartzaleak.

Eusko Jaurlartzaren aldetik, Jaurlartzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza izango da proiektuaz arduratuko den organoa; orobat

Cuarta.- Obligaciones de las partes.

1.- Es responsabilidad de cada una de las partes la adopción de aquellas medidas informáticas o de otra naturaleza que garanticen el cumplimiento de las obligaciones contenidas en el presente convenio. En particular será por cuenta de cada parte la dotación de los medios que posibiliten la aplicación de la firma electrónica, tales como la adquisición de certificados electrónicos y dispositivos de creación y verificación de firma.

2.- Cada institución suscritante deberá adoptar las medidas necesarias para garantizar el cumplimiento de las obligaciones que de conformidad con la normativa aplicable les corresponden en relación con el registro de las comunicaciones telemáticas y su conservación. Asimismo cada parte garantizará la generación de recibos electrónicos debidamente firmados para acreditar la recepción y registro de los escritos.

Quinta.- Órgano intervinentes responsables del proyecto y de las comunicaciones.

Por parte del Gobierno Vasco, la Secretaría del Gobierno y Relaciones con el Parlamento será el órgano responsable del proyecto, así como el encargado tanto de recepcionar como de enviar

arduratuko da komunikazio elektronikoak jasotzeaz eta bidaltzeaz, bai eta dagokion sailetara berriro bidaltzeaz ere, gehienez ere 24 orduko epean. Arartekoarentzako komunikazio elektronikoak ere organo horrek bidaliko ditu, epe horren barruan bidali ere.

las comunicaciones electrónicas, y de remitirlas, en el plazo máximo de 24 horas, a los Departamentos a los que las mismas vayan dirigidas. Los envíos al Ararteko, de igual modo, se realizarán por dicho órgano en el mismo plazo indicado.

Arartekoaren aldetik, Gizarte Harremanetako, Azterlanetako eta Modernizazioko Zuzendaritzaz izango da proiektuaz arduratuko den organoa, eta Idazkaritza Nagusia arduratuko da, Erregistro Orokorraren bidez, komunikazio elektronikoak jasotzeaz eta bidaltzeaz.

Por parte del Ararteko, el órgano responsable del proyecto será la Dirección de Relaciones Sociales, Estudios y Modernización; y el órgano responsable de las recepciones y los envíos será la Secretaría General, a través de Registro General.

Seigarrena.- Gobernuak Arartekoaren eskabideei erantzuteko izango dituen epeak.

Komunikazio-sistema ahalik eta eraginkorrena izan dadin eta informazioa eskaerako bideak estandarizatzeko aldera, epe batzuk ezarri ditugu, Arartekoaren eskabideei erantzuteko kontuan hartu beharrekoak. Hona hemen epe horiek:

- Kexa-espediente bat bada, lehenengo informazio-eskaerari erantzuteko epea 15 egun izango da, delako sailak eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita.
- Eusko Jaurlaritzak dagoeneko izapidetu duen kexa-espediente bat bada, informazio osagarria jasotzeko eskaerari erantzuteko epea 15 egun izango da, edo, hala badagokio, informazio osagarria eskaerako idazkian ezartzen den epea.

Sexta.- Plazos de respuesta del Gobierno a las solicitudes del Ararteko.

A fin de propiciar la máxima eficacia del sistema de comunicaciones y favorecer el estandarización en los circuitos de petición de información, se determinan como plazos relevantes a contemplar en las respuestas al Ararteko, los siguientes:

- En el caso de primera petición de información en un expediente de queja, el plazo de respuesta será de 15 días, desde la recepción por el Departamento afectado.
- En el caso de solicitud de información complementaria en un expediente de queja ya tramitado ante el Gobierno Vasco, el plazo será, igualmente, de 15 días o, en su caso, el establecido en el escrito de solicitud de información complementaria.



Convenio de colaboración para la utilización de medios telemáticos en el intercambio de comunicaciones.
Lankidetza-hitzarmena, komunikazio-trukerako bitarteko telematikoak erabiltzeko.

Zazpigarrena.- Datu pertsonalak babesteko araudia eta konfidentialtasun-arloko errekerimendua bete daitezen bermatzea.

Alde izenpetzaile biek konpromisoa hartu dute izapidezten diren gaien konfidentialtasunari dagozkion betebeharrak betetzeko, bai eta datu pertsonalak babestearen arloko legediari dagozkion errekerimendua betetzeko ere, eta, ildo horretatik, betebehar eta errekerimendu horiek betetzea xede duten erabakiak hartuko dituzte.


Arartekoak, bere aldetik, Eusko Jaurlaritzari bidaltzen dizkion idazkietan datu pertsonalak sartuko ditu, baldin eta datu horiek beharrezkoak badira helarazi nahi duen informazioa helarazteko edo Arartekora jo duen pertsonaren eskaerari bide emateko; bestela, ez ditu sartuko.

Zortzigarrena.- Jarraipen Batzordea.

Jarraipen Batzorde bat eratuko da, lau pertsonez osatua. Hitzarmen hau izenpetu duten aldeetako bakoitzak pertsona bi izendatuko ditu. Batzordea, gutxienez, urtean behin bilduko da, eta urtean zehar sortzen diren zalantzak eta arazoak konpontzeaz arduratuiko da.

Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau izenpetzen den egunean sartuko da indarrean, eta urtero luzatuko da, automatikoki luzatu ere, baldin eta hurrengo klausulan ezartzen den arrazoietakoren batengatik amaitzen ez bada.



Convenio de colaboración para la utilización de medios telemáticos en el intercambio de comunicaciones.
Lankidetza-hitzarmena, komunikazio-trukerako bitarteko telematikoak erabiltzeko.

Séptima.- Garantía del cumplimiento de los requerimientos de confidencialidad y de la normativa de protección de datos personales.

Ambas partes suscriptoras se comprometen al seguimiento de los requisitos derivados de la confidencialidad de los temas objeto de tramitación, así como por los requerimientos derivados de la legislación en materia de protección de datos personales, adoptando las decisiones tendentes a su efectividad.

Por su parte, el Ararteko únicamente incorporará datos personales en los escritos dirigidos al Gobierno vasco, cuando dichos datos resulten relevantes para facilitar la información interesada, o resolver la petición de la persona que se ha dirigido al Ararteko.

Octava.- Comisión de Seguimiento.

Se constituye una Comisión de Seguimiento formada por cuatro personas, dos designadas por cada una de las partes suscriptoras del presente convenio, que se reunirá, al menos, una vez al año, y será la encargada de resolver las dudas y problemas que puedan plantearse en el desarrollo del mismo.

Novena.- Vigencia del convenio.

El presente convenio entrará en vigor el día de su suscripción y se prorrogará anualmente de forma automática, en tanto no se resuelva por alguna de las causas establecidas en la cláusula siguiente.

Hamargarrena.- Amaitzeko arrazoiak.

Hona hemen hitzarmena amaitzeko arrazoiak:

- Aldeak ados jartzea eta hitzarmena amaitu nahi dutela erabakitzea.
- Hitzarmen honetako klausuletako edozein ez betetzea.
- Aldeetako edozeinek hitzarmena amaitu nahi duela adieraztea. Idatziz adierazi beharko du hori, eta, hitzarmena noiz amaitza erabakitzent duen, gutxienez hiru hilabete lehenago formalizatu.


Ados daudela adierazte aldera, agertutako aldeek dokumentu honen ale bi izenpetu dituzte, ondorio bakarrarekin izenpetu ere, goian adierazitako tokian eta egunean.

Décima.- Causas de resolución.


Son causas de resolución:

- El mutuo acuerdo.
- El incumplimiento de cualquiera de las cláusulas de este convenio.
- Por denuncia de cualquiera de las partes, formalizada por escrito con, por lo menos, tres meses de antelación a la fecha en la que se decida la resolución unilateral del convenio.

En prueba de conformidad las partes comparecientes firman el presente documento por duplicado y a un solo efecto, en el lugar y fecha arriba indicados.



D. Josu Iñaki Erkoreka Gervasio Jn.
HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA
SAILBURUA/CONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA



D. Iñigo Lamarca Iturbe Jn.
ARARTEKO/ARARTEKO

ERANSKINA

ANEXO

Errekerimenduak, ziurtagiri elektronikoaren balioa egiaztatzeko

Aldeetako bakoitzak aukera izan dezan egiaztatzeko jasotzen dituen komunikazioak izenpetzko erabilitako ziurtagiria baliozkoa dela, erakunde biek konpromisoa hartu dute beren komunikazio elektronikoetan sinadura elektronikoarekin batera sinadura sortzeko erabilitako ziurtagiriaren indarraldiaren baliozkotzea ere sartzeko. Izenpe S.Ak emango du baliozkotzea.

Requerimientos para la comprobación de la vigencia del certificado electrónico

Con objeto de que cada una de las partes pueda proceder a la comprobación de la validez del certificado con el que se firman las comunicaciones de las que es destinatario, ambas instituciones se comprometen en sus respectivas comunicaciones electrónicas, a adjuntar junto a la firma electrónica la validación de la vigencia del certificado empleado para generarla. La validación se emite por Izenpe, S.A.

